



Espazio arkitektoniko deseraikia

Bertako espazio-arkitektura publikoa bere balio estetiko, formal, emozional eta sentsorialetatik aztertu ondoren, ikertutako alderdi guztiak irudikatzeko instalazio artistiko bat sortuko dugu.

Helburuak

- Iranzu Antonaren obrara gerturatzea.
- Ingurune arkitektoniko hurbilena fisikoki eta emozionalki pentsatzea estrategia artistikoen bidez.
- Eskolan instalazio artistiko bat sortzea.

Aipamenak

Hacia una arquitectura. Le Corbusier. Ed. Apóstrofe.

El Estilo Internacional: Arquitectura desde 1922 Henry-Russell Hitchcock, Philip Johnson.

Colección Arquitectura. N°11

[https://es.wikipedia.org/wiki/Racionalismo_\(arquitectura\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Racionalismo_(arquitectura))

https://es.wikipedia.org/wiki/Orden_d%C3%B3rico

https://es.wikipedia.org/wiki/Acr%C3%B3polis_de_Atenas

Edición de vídeo - DaVinci Resolve: www.youtube.com/watch?v=8VnN1VvDYoM

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Aldez aurretik, irakasleak munduko arkitekturako 5 irudi enblematiko hautatuko ditu, honako hauei erantzunez: zer irudik lagundu dute arkitekturaren historiari buruzko nire irudimen bisuala konfiguratzeko?
2. Irudiak ikasleei erakutsiko dizkiegu, hautaketa azaltzeko. Ezagutzen zituzten irudiak? Non ikusi zituzten?
3. Iranzu Antonaren "Dar Encuentro" lana ikusi eta azalduko dugu. <http://www.iranzuantona.com/darencuentro/>
4. Lauko taldeetan, ikusitako 5 irudien kopiarekin, eskema bat egingo dugu gure buruari galdetuz: nola usaintzen du edo usain dezake leku bakoitzak? Defini al dezakegu erabilitako materialen baten testura?
5. Talde berdinetan, ondo ezagutzen dugun espazio publiko bati argazkiak aterako dizkiogu: plaza bat, gure herriko txoko bat, kale zehatz bat...

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Egindako argazkiak aztertu eta geure buruari galdetzen diogu: nola usaintzen du edo usain dezake leku bakoitzak? Defini dezakegu erabilitako materialen baten testura?
Irudikatutako lekuko bizipenen eta presentziaren ondorioz, lekuak guztiz bestelako zentzua hartzen du. Zer galtzen dugu lehenengo irudiak interpretatzerakoan?
2. Argazkia ateratako espazio publiko hori ikastetxera nola eramán pentsatuko dugu. Alderdi ez materialak eta materialak irudikatu behar ditugu, honako hauek kontuan hartuta:

- a-zentzumenezko-emozionala: testura, usaina, oroitzapenak, etab.
- b-espaziala: dimentsioak, ematen dizkigun espazio-sentsazioak, etab.

Puntu bakoitzeko (a eta b) hiru ideia zerranda-eskema bat sortuko dugu.

3. Egindako ikerketa eta hausnarketa irudikatzeko instalazio artistikoa planifikatuko dugu. Lehenik eta behin, esku hartu beharreko leku bat pentsatuko dugu eskolan (jolastokia, korridorea, liburutegia...). Instalazioak elementu hauetakoren bat izan dezake:

- Irudikatzen den espaziotik ibilbide bat egiten duen bideo bat proiektatzea.
- Tokiko material adierazgarriekin landuko diren eskultura-piezak.
- Lekuaren historia jasotzen duen murala, irudiekin, eskemekin, pertsonei egindako elkarrizketekin...
- Lekuaren plano lurrean, bertan gertatzen diren ekintzen irudikapen posibleekin (markatu hortik pasatzean egiten diren ibilbideak-oinatzak, jolas jakin bat jolasten dugunean uzten ditugun aztarnak...)
- Espazio publiko horretan erregistratutako audioa.

4. Instalazioak zer elementu izatea nahi dugun hautatuko dugu, eta lau taldeetan banatuko ditugu piezak egiteko zereginak.

5. Horiek amaitutakoan, nola muntatuko ditugun erabaki eta gure instalazio artistikoa egingo dugu ikastetxean.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. GIFT-ak egingo ditugu instalazioa ikusteko gonbidapen gisa.
2. Argitalpen-fanzine txiki bat sortuko dugu, gure instalazio artistikoa ikustera datozen pertsonei emateko.
3. Instalazio artistikoa kulturguneren batera, udal erakusketa-aretoa eta kultur etxera... eramango dugu. Eta proiektu honetan ikasitakoari buruzko jardunaldi-eztabaida sortuko dugu, hirigintzan edo gure herriaren/hiriaren historian adituak diren pertsonekin.